

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

4037/2021 Ebazpena, urriaren 5koa, zeinaren bidez onesten baitira salgaiak eta bidaiariak errepidez garraiatzera zuzenduriko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) eskuratzeko 2021eko irailaren 24an Arabako Lurralde Historikoan egindako probaren behin betiko emaitzak

Azaroaren 24ko 3263/2020 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA), salgaiak eta bidaiariak errepidez garraiatzeko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duena, eskuratzeko xedez Arabako Lurralde Historikoan 2021ean egitea aurreikusitako probetarako.

Aipatutako ebazpenaren I. eranskinaren lehen oinarriak xedatzen du 2021an sei deialdi egingo direla, eta bosgarren deialdiko proba 2021eko irailaren 24an, ostiralarekin, egingo zela. Proba hori aurreikusita zegoen bezala egin zen.

Zortzigarren oinarriaren arabera, ariketak kalifikatu ondoren, epaimahaiak www.araba.eus web orrian argitaratu behar ditu behin-behineko emaitzak, eta bost egun balioduneko epea hasiko da, interesdunek alegazioak egin ditzaten. Behin ebatzi ondoren, behin betiko emaitzak onetsi behar ditu Mugikortasun eta Garraio zuzendariak, ALHAOn argitaratuko den ebazpenaren bidez.

Behin-behineko emaitzak 2021eko irailaren 27an argitaratu ziren web orrian, eta haien aurka ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu. Beraz, behin betikotzat jo behar dira.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuarekin, diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Foru Dekretuarekin eta azaroaren 22ko 2239/2019 Ebazpenarekin bat etorritik, eta dagozkidan eskumenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea salgaiak eta bidaiariak errepide bidez garraiatzeko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) eskuratzeko probaren behin betiko emaitzak, zeinak eranskinean jaso baitira. Azterketa hori 2021eko irailaren 24an egin zen, Arabako Lurralde Historikoan.

Bigarrena. Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila, eta behin betiko emaitzen zerrenda www.araba.eus web orrian.

Ebazpen honek ez du agortzen administrazio bidea eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 112.1 eta 121. artikuluetan ezarritakoaren arabera, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 5a

Mugikortasun eta Garraio zuzendaria
PATRICIA PÉREZ AGUIRRE

GGA LORTZEKO EMAITZEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA - SALGAIK

NAN	EMAITZA
58031195X	Ez gai
79224785C	Ez aurkeztua
X3273335K	Ez gai
X4588032S	Ez gai
X7429408V	Ez gai
Y0209886W	Gai
Y0906396A	Ez aurkeztua
Y1026146S	Ez gai
Y1126533F	Ez gai

GGA LORTZEKO EMAITZEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA - BIDAIARIK

NAN	EMAITZA
Y1192980F	Ez gai